

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2024ko ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Erika Letamendi Hurtadok, Arabako Donemiliagako Udaleko alkatea,

Jakinarazten dut: 2025eko otsailaren 17tik aurrera ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2024ko ordainagiriak.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2025eko otsailaren 17tik martxoaren 31ra.

B) Betearazte aldia: 2025eko apirilaren 1etik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Banketxeetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontu berbera badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Ordaintzeko tokiak:

– Kutxabanken bulegoak.

– Laboral Kutxaren bulegoak

– Interneten bidez, Donemiliagako Udalaren web orrian: <https://donemiliaga.eus/eu/udala> (Nire ordainketa).

III. Gomendioak.

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak eta hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Donemiliagako Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Erdoña, 2025eko otsailaren 11

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO